

/2019 FORU DEKRETUA, -aren, -(e)koa, ezartzen duena, batetik, zein titulak eta ziurtagirik egiaztatzen duten euskararen jakite-maila, eta, bestetik, hizkuntzaren jakite-maila hori zer kasutan egonen den salbuetsita titulu eta ziurtagiri bidez egiaztatu beharretik.

Foru dekretu honen bidez, nahi dena da arau bakarrera ekarri eta modu orokorrean ezarri zer titulu eta ziurtagirik egiaztatzen duten euskararen jakite-maila, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan.

Bestetik, foru dekretu honek aitortu eta balioetsi egiten du euskarazko irakaskuntza, eta, horrela, ikasketak euskaraz egin ondotik eskuratutako tituluei zer salbuespen maila dagokien ezartzen du, euskara egiaztatzeari dagokionez; horrez gain, zenbait baldintza finkatzen ditu ikasketak, salbuespen horri begira, euskaraz egindakotzat har daitezen.

Foru dekretu honetan aitortzen diren salbuespenek orobat balio dute sarbideko hizkuntza-maila finkatzeko, euskararen ikasketak jarraitzen badira hizkuntza eskola ofizialetan, helduei euskara irakasteko ikastegietan, Nafarroako Gobernuak edo beste administrazio publikoek homologatutako euskaltegietan edo hizkuntzak irakasten dituzten instituzio eta zentroetan.

Azkenik, ezin da alde batera utzi Euskal Autonomia Erkidegoan antzeko arau bat dagoela; horrela, hori kontuan hartu da finkatzerakoan zer datatik aurrerakoa lortua izan beharko duen kasuan kasuko tituluak, halako moduz non baldintza beretan egon daitezen titulua Nafarroan lortutakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoan lortutakoa.

Ondorioz, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak proposaturik, Nafarroako Gobernuak bi mila eta hemeretzi an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat, dekretatzen dut:

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. *Xedea eta aplikazio-eremua.*

1. Foru dekretu honen xedea da ezartzea zer

DECRETO FORAL /2019, de de , por el que se establecen los títulos y certificaciones que acreditan el nivel de conocimiento de euskera, así como los supuestos de exención de la acreditación de dicho conocimiento con títulos y certificaciones lingüísticas.

Mediante el presente Decreto Foral, se pretende establecer en una única norma, y de manera general, qué títulos y certificaciones acreditan el conocimiento de euskera en el ámbito de la Comunidad Foral de Navarra, con referencia a los niveles que establece el Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

Por otra parte, el presente Decreto Foral reconoce y pone en valor la enseñanza en euskera, y, así, establece los niveles de exención de certificación lingüística en función de los diferentes títulos obtenidos tras cursar los estudios en lengua vasca y fija las condiciones para que, a efectos de dicha exención, estos estudios puedan ser considerados como realizados en euskera.

Las exenciones reconocidas en este Decreto Foral sirven asimismo para fijar los niveles lingüísticos de incorporación a la continuidad de los estudios de lengua vasca en Escuelas Oficiales de Idiomas, centros públicos de enseñanza del Euskera a personas a adultas y euskaltegis homologados tanto por el Gobierno de Navarra como por otras administraciones públicas, instituciones y centros dedicados a la enseñanza de las lenguas.

Finalmente, no se puede obviar la existencia de una norma similar en la Comunidad Autónoma Vasca, la cual se ha tenido en cuenta a la hora de fijar a partir de qué fecha habrá de haberse obtenido el título correspondiente, con el fin de que las personas que hubieran obtenido su título en Navarra estén en igualdad de condiciones con quienes lo hubieran obtenido en la Comunidad Autónoma Vasca.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Relaciones Ciudadanas e Institucionales, de conformidad con la decisión adoptada por el Gobierno de Navarra en sesión celebrada el día de dos mil diecinueve, decreto:

TÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. *Objeto y ámbito de aplicación.*

1. El objeto del presente Decreto Foral es

titulak eta ziurtagirik egiaztatzen duten euskararen jakite-maila, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera, eta euskaraz egindako ikasketa ofizialak aitortzea eta, ondorioz, ikasketa horiek egindakoak salbuestea euskara-maila titulu eta ziurtagiri linguistikoen bidez egiaztatu beharretik.

2. Foru dekretu hau Nafarroako Foru Komunitatean aplikatuko da.

II. TITULUA. EUSKARAREN JAKITE-MAILA
EGIAZTATZEN DUTEN TITULU ETA
ZIURTAGIRIAK, ADMINISTRAZIOAN
SARTZEKO PROZESUETAN ETA BERTAKO
LANPOSTUAK LEHIAKETA BIDEZ
BETETZEKOETAN

2. artikulua. *Tituluak eta ziurtagiriak.*

Euskararen jakite-maila, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera adierazia, foru dekretu honen I. eranskinean jasotzen diren titulu edo ziurtagirietako baten bidez baloratuko da.

III. TITULUA. TITULU ETA ZIURTAGIRI BIDEZ
EGIAZTATU BEHARRAREN SALBUESPENA
EUSKARAZ EGINDAKO IKASKETA
OFIZIALENGATIK

3. artikulua. *Unibertsitateko titulazioekin lotutako salbuespenak.*

1. Unibertsitate ikasketa ofizialen antolamendua ezartzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak arautu eta lurralde nazional osoan baliozkoa den unibertsitateko titulu ofizial bat dutenak, betiere dekretu honen II. eranskineko baldintzetako bat betetzen badute, salbuetsita egonen dira Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarazko titulu eta ziurtagiri linguistikoen bidez egiaztatu beharraz beren jakite-maila.

2. Unibertsitate ikasketa ofizialen antolamendua ezartzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak arautu ez (aurretikoa izateagatik) eta lurralde nazional osoan baliozkoa den unibertsitateko titulu ofizial bat dutenak, betiere 2008ko apirilaren 16aren ondotik eskuratu eta dekretu horren III. eranskineko baldintzetako bat

establecer los títulos y certificaciones que acreditan el conocimiento de euskera, con referencia a los niveles que establece el Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, y el reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y la consecuente exención a quienes han realizado dichos estudios de la acreditación del conocimiento de euskera mediante títulos y certificaciones lingüísticas.

2. El presente Decreto Foral será de aplicación en la Comunidad Foral de Navarra.

TÍTULO II. TÍTULOS Y CERTIFICACIONES QUE
ACREDITAN EL CONOCIMIENTO DEL EUSKERA
EN LOS PROCESOS DE INGRESO Y
PROVISIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO

Artículo 2. *Títulos y certificaciones.*

El conocimiento del euskera se valorará mediante la posesión de alguno de los títulos o certificaciones recogidos en el Anexo I del presente Decreto Foral, de conformidad con los niveles establecidos en el Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

TÍTULO III. EXENCIÓN DE LA ACREDITACIÓN
CON TÍTULOS Y CERTIFICACIONES POR
ESTUDIOS OFICIALES REALIZADOS EN
EUSKERA

Artículo 3. *Exenciones relacionadas con las titulaciones universitarias.*

1. Se reconoce a quienes estén en posesión de un título universitario oficial y con validez en todo el territorio nacional regulado por el Real Decreto 1393/2007, de 29 de octubre, por el que se establece la ordenación de las enseñanzas universitarias oficiales y cumplan alguno de los requisitos establecidos en el Anexo II, la exención de la necesidad de acreditar los títulos y certificaciones lingüísticas en euskera consideradas equivalentes al nivel C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

2. Se reconoce a quienes estén en posesión de un título universitario oficial y con validez en todo el territorio nacional previo a los regulados por el Real Decreto 1393/2007, de 29 de octubre, por el que se establece la ordenación de las enseñanzas universitarias oficiales, obtenido con posterioridad al 16 de abril de 2008 y cumplan alguno de los

betetzen badute, salbuetsita egonen dira Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarazko titulu eta ziurtagiri linguistikoen bidez egiaztatu beharraz beren jakite-maila.

4. artikulua. *Batxilergo tituluarekin eta goi mailako teknikari tituluarekin lotutako salbuespenak.*

1. Batxilergo titulua edo goi mailako teknikari titulua dutenak, betiere 2008ko apirilaren 16aren ondotik eskuratu eta curriculumaren % 50etik gora euskaraz ikasi badute, salbuetsita egonen dira Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B2 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarazko titulu eta ziurtagiri linguistikoen bidez egiaztatu beharraz beren jakite-maila.

2. Batxilergo titulua edo goi mailako teknikari titulua dutenak, betiere 2008ko apirilaren 16aren ondotik eskuratu eta Euskara irakasgaia A ereduan ikasi badute, salbuetsita egonen dira Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko A2 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarazko titulu eta ziurtagiri linguistikoen bidez egiaztatu beharraz beren jakite-maila. Edozein gisaz, beharrezkoa izanen da, aurrekoaz gain, Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaia gainditua izatea etapako ikasmaitan.

5. artikulua. *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu tituluarekin eta teknikari tituluarekin lotutako salbuespenak.*

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua edo teknikari titulua dutenak, betiere 2008ko apirilaren 16aren ondotik eskuratu eta curriculumaren % 50etik gora euskaraz ikasi badute, salbuetsita egonen dira Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B1 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarazko titulu eta ziurtagiri linguistikoen bidez egiaztatu beharraz beren jakite-maila. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu tituluaren kasuan, beharrezkoa izanen da, aurrekoaz gain, Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaia gainditua izatea etapako lau ikasmaitan.

2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua edo teknikari titulua dutenak, betiere 2008ko apirilaren 16aren ondotik eskuratu eta Euskara irakasgaia A ereduan ikasi badute,

requisitos establecidos en el Anexo III, la exención de la necesidad de acreditar los títulos y certificaciones lingüísticas en euskera consideradas equivalentes al nivel C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

Artículo 4. *Exenciones relacionadas con el título de Bachiller y Técnico Superior.*

1. Se reconoce a quienes estén en posesión del título de Bachiller o de Técnico Superior, obtenido con posterioridad al 16 de abril de 2008 y que hubieran cursado y superado en euskera más del 50 % del total del currículo correspondiente a estas titulaciones, la exención de presentar los títulos y certificaciones lingüísticas en euskera considerados equivalentes al nivel B2 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

2. Se reconoce a quienes estén en posesión del título de Bachiller o de Técnico Superior, obtenido con posterioridad al 16 de abril de 2008 y que hubieran cursado el euskera como asignatura en el modelo A, la exención de presentar los títulos y certificaciones lingüísticas en euskera considerados equivalentes al nivel A2 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas. En cualquier caso, será requisito el haber superado la materia de Lengua Vasca y Literatura en todos los cursos de la etapa.

Artículo 5. *Exenciones relacionadas con el Título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria y Técnico.*

1. Se reconoce, a quienes estén en posesión del título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria o de Técnico, obtenido con posterioridad al 16 de abril de 2008 y que hubieran cursado en euskera más del 50 % del total del currículo correspondiente a estas titulaciones, la exención de presentar los títulos y certificaciones lingüísticas en euskera considerados como equivalentes al nivel B1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas. En el caso del título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria será requisito añadido la superación de la materia de Lengua Vasca y Literatura en los cuatro cursos de la etapa.

2. Se reconoce, a quienes estén en posesión del título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria o de Técnico, obtenido con posterioridad al 16 de abril de 2008 y que hubieran

salbuetsita egonen dira Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko A1 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarazko titulu eta ziurtagiri linguistikoak bidez egiaztatu beharraz beren jakite-maila. Edozein gisaz, beharrezkoa izanen da, aurrekoaz gain, Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaia gainditua izatea etapako ikasmaita guztietan.

6. artikulua. *Salbuespenen ondorioak eta aplikazioa.*

1. Foru dekretu honen 3., 4. eta 5. artikuluetan ezarritako salbuespenek ondorioak izanen dituzte titulu edo ziurtagiri linguistikoak betebeharr gisa eskatu edo merezimendu gisa baloratzen direnean Nafarroako Foru Komunitateko administrazioetan sartzeko deialdietan eta lanpostuak lehiaketa bidez betetzekoetan; betiere, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako funtzio publikorako berariazko xedapenen kalterik gabe.

2. Salbuespenek, orobat, ondorioak izanen dituzte titulu edo ziurtagiri linguistikoak eskatzen direnean kaudimen teknikoaren betebeharra egiaztatzeke sektore publikoko kontratazioetan. Salbuespen horiek baliatu nahi dituztenek, eskatutako kaudimen teknikoa egiaztatzeke, foru dekretu honetan arautzen den moduan egiaztatutako dute kaudimen tekniko hori, hizkuntza-titulu edo -egiaztagiria aurkeztetik salbuesten dieten ikasketak egin izana kreditatzen duten ziurtagiriak aurkeztuz.

3. Foru dekretu honen 3., 4. eta 5. artikuluetako baldintzak betetzen dituen gaituta egonen da euskarazko ikasketen jarraipena edo euskara azterketak dagokion mailan egiteke.

4. Salbuespenak aplikatzeko, foru dekretu honen I. tituluan aurreikusitako baliokidetzat erabiliko da.

7. artikulua. *Unibertsitateko ziurtagiriak.*

Unibertsitateei dagokie ziurtagiria ematea foru dekretu honen 3. artikuluan ezarritako salbuespenak aplikatzeko.

8. artikulua. *Unibertsitateko ziurtagiriak.*

Hezkuntza Departamentuari dagokio ziurtagiria

cursado el euskera como asignatura en el modelo A, la exención de presentar los títulos y certificaciones lingüísticas en euskera considerados como equivalentes al nivel A1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas. En cualquier caso, será requisito el haber superado la materia de Lengua Vasca y Literatura en todos los cursos de la etapa.

Artículo 6. *Efectos y aplicación de las exenciones.*

1. Las exenciones previstas en los artículos 3, 4 y 5 de este Decreto Foral surtirán efectos cuando los títulos o certificaciones lingüísticas sean exigidos como requisito o valorados como mérito en las convocatorias de ingreso y provisión de las administraciones de la Comunidad Foral de Navarra, sin perjuicio de lo que se establezca de manera específica para la función pública docente no universitaria.

2. Asimismo surtirán efectos cuando los títulos o certificaciones lingüísticas se establezcan como medio de acreditación del requisito de solvencia técnica en las contrataciones del Sector Público. Quienes estén amparados por estas exenciones acreditarán la concurrencia de la solvencia técnica requerida mediante las correspondientes certificaciones de haber cursado sus estudios en las condiciones en virtud de las cuales se les exonera de presentar los títulos o certificaciones lingüísticas, con arreglo a lo dispuesto en el presente Decreto Foral.

3. Quien cumpla los requisitos mencionados en los artículos 3, 4 y 5 de este Decreto Foral estará habilitado o habilitada para proseguir sus estudios de lengua vasca o acceder a los exámenes de euskera a partir del nivel correspondiente.

4. Para la aplicación de estas exenciones se utilizará la equiparación prevista en el Título I del presente Decreto Foral.

Artículo 7. *Certificaciones universitarias.*

Corresponderá a las universidades emitir la certificación para la aplicación de las exenciones establecidas en el artículo 3 de este Decreto Foral.

Artículo 8. *Certificaciones no universitarias.*

Corresponderá al Departamento de Educación

ematea foru dekretu honen 4. eta 5. artikuluetan ezarritako salbuespenak aplikatzeko.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Salbuespenen ondorioak arlo, irakasgai edo moduluak euskaraz irakasteko.*

Foru dekretu honen 3. artikuluan araututako salbuespenak eragina izango du irakaskuntza ez-unibertsitarioan arlo, irakasgai edo modulu bat (euskal hizkuntza eta literatura salbu) euskaraz irakasteko kualifikazio espezifiko bat izatearen baldintza betetzeko.

Bigarren xedapen gehigarria. *Administrazioetan sartzeko deialdietako berariazko probak.*

Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuko hirugarren xedapen gehigarrian aipatutako bi urteko epea amaiturik, eta lanpostuak lehiaketa bidez betetzeko deialdietarako ezarritakoari kalterik egin gabe, euskararen jakite-maila egiaztatzen ahalko da, ofizialki onartutako tituluez, ziurtagiriaz eta salbuespenez gain, deialdietan ezarritako berariazko proben bidez; proba horietan egiaztatzen den euskara-mailari buruzko egiaztagiria betiko balioa izanen du.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Foru dekretu honetan jaso gabeko beste titulu edo ziurtagiri batzuen baliozkotasunaren aitortpena.*

Nafarroako Gobernuak, gaian eskuduna den erakunde edo unitatearen bitartez, foru dekretu honetako I. eranskinean jaso gabeko balizko beste titulu edo ziurtagiri batzuk aitortzen ahalko ditu.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

Indargabetuta gelditzen dira, euskarari dagokionez, honako arau hauek:

- 210/2010 Ebazpena, irailaren 13koa, Nafarroako Administrazio Publikoaren

emitir la certificación para la aplicación de las exenciones establecidas en los artículos 4 y 5 de este Decreto Foral.

Disposición adicional primera. *Efectos de las exenciones para impartir áreas, materias o módulos en euskera.*

La exención prevista en el artículo 3 de este Decreto Foral surtirá efecto para el cumplimiento del requisito de cualificación específica para impartir un área, materia o módulo en euskera, excepto la materia de Lengua vasca y Literatura, en las enseñanzas no universitarias.

Disposición adicional segunda. *Pruebas específicas de euskera en las convocatorias de ingreso.*

Finalizado el periodo de dos años al que hace referencia la disposición tercera del Decreto Foral 103/2017, de 15 de noviembre, por el que se regula el uso del euskera en las administraciones públicas de Navarra, sus organismos públicos y entidades de derecho público dependientes, y sin perjuicio de lo establecido en dicha disposición para las convocatorias de provisión, el conocimiento de euskera se podrá seguir acreditando, además de mediante los títulos, los certificados y las exenciones oficialmente reconocidas, mediante la superación de las pruebas específicas previstas en dichas convocatorias; el certificado sobre el nivel de conocimiento de euskera acreditado en dichas pruebas tendrá validez permanente.

Disposición adicional tercera. *Reconocimiento de la validez de títulos o certificados no recogidos en el presente Decreto Foral.*

El Gobierno de Navarra, a través del organismo o unidad que ostente la competencia en la materia, podrá reconocer, en su caso, la validez de otros títulos o certificados no recogidos en el Anexo I del presente Decreto Foral.

Disposición derogatoria única. *Derogación normativa.*

Quedan derogadas, en lo relativo al euskera, las siguientes normas:

- Resolución 210/2010, de 13 de septiembre, del Director Gerente del Instituto Navarro

Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, euskararen eta Europar Batasuneko hizkuntzen jakite-maila egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliozkotzeak ezartzen dituen, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera.

- 30/2011 Foru Agindua, otsailaren 28koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, hizkuntzen jakite maila egiaztatzen duten titulazioak eta ziurtagiriak ezartzen dituen, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuak ezartzen dituen mailei erreferentzia eginez, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren eskumeneko eremuan.
- 1329/1998 Foru Agindua, abenduaren 31koa, Hezkuntza eta Kulturako kontseilariak emana, OHOk Irakasle Eskola Unibertsitarioan euskaraz eginiko ikasketak eta Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) baliokideak direla aitortu eta titulu hori ematea arautzen duena.

Azken xedapenetan lehena. Arau garapena.

Hizkuntza politikaren arloko eskumena duen departamentuko kontseilariari ahalmena ematen zaio behar diren xedapen guztiak eman ditzan foru dekretu hau betearazi eta garatzeko.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2019(e)ko aren (e)an.

I. ERANSKINA. Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuak ezartzen dituen mailen arabera

-A1 maila:

Nafarroako Gobernuak Euskarabidean edo Zubiarte euskaltegian antolatutako ikastaroetan, A1 mailaren azterketa gainditu izanaren

de Administración Pública, por la que se establecen las convalidaciones entre los diferentes títulos y certificaciones que acreditan el conocimiento del vascuence y de los idiomas comunitarios, según el Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

- Orden Foral 30/2011, de 28 de febrero, del Consejero de Educación, por la que se establecen las titulaciones y certificaciones que, con referencia a los niveles que establece el Marco común europeo de referencia para las lenguas, acreditan el conocimiento de idiomas en el ámbito de competencia del Departamento de Educación del Gobierno de Navarra.
- Orden Foral 1329/1988, de 31 de diciembre, del Consejero de Educación y Cultura, por la que se reconoce la equivalencia y se regula la expedición del título de conocimiento de euskera (EGA) para estudios realizados en lengua vasca en la Escuela Universitaria de Formación del Profesorado de EGB.

Disposición final primera. Desarrollo normativo.

Se faculta a la persona que ostente la titularidad del departamento competente en materia de política lingüística para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para la ejecución y desarrollo de lo dispuesto en este decreto foral.

Disposición final segunda. Entrada en vigor.

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Navarra.

Dado en Pamplona, a de de 2019.

ANEXO I. Títulos y certificaciones que acreditan el conocimiento de euskera, con referencia a los niveles que establece el Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas

-Nivel A1:

Certificado de haber superado el examen del nivel A1 de los cursos organizados por el Gobierno de Navarra, bien a través de Euskarabidea, bien a

ziurtagiria.

2017ko azaroaren 30aren ondoko deialdi batean, izan sartzeko deialdia edo lanpostua lehiaketa bidez betetzekoa, berariazko probak egin eta A1 maila gainditu izanaren ziurtagiria.

Nafarroako Gobernuak eman ditzakeen edo baliozkotzat jo ditzakeen A1 mailako beste ziurtagiri batzuk.

1. maila gainditu izanaren ziurtagiria, edozein hizkuntza eskola ofizialek luzatua (2008koa edo lehenagokoa).

1. oinarrizko maila gainditu izanaren ziurtagiria, edozein hizkuntza eskola ofizialek luzatua (2009koa edo geroagokoa).

-A2 maila:

Nafarroako Gobernuak Euskarabidean edo Zubiarte euskaltegian antolatutako ikastaroetan, A2 mailaren azterketa gainditu izanaren ziurtagiria.

2017ko azaroaren 30aren ondoko deialdi batean, izan sartzeko deialdia edo lanpostua lehiaketa bidez betetzekoa, berariazko probak egin eta A2 maila gainditu izanaren ziurtagiria.

Nafarroako Gobernuak eman ditzakeen edo baliozkotzat jo ditzakeen A2 mailako beste ziurtagiri batzuk.

2. maila gainditu izanaren ziurtagiria, edozein hizkuntza eskola ofizialek luzatua (2008koa edo lehenagokoa).

2. oinarrizko maila gainditu izanaren ziurtagiria, edozein hizkuntza eskola ofizialek luzatua (2009koa edo geroagokoa).

-B1 maila:

Nafarroako Gobernuak Euskarabidean edo Zubiarte euskaltegian antolatutako ikastaroetan, B1 mailaren azterketa gainditu izanaren ziurtagiria.

2017ko azaroaren 30aren ondoko deialdi batean, izan sartzeko deialdia edo lanpostua lehiaketa bidez betetzekoa, berariazko probak egin eta B1 maila gainditu izanaren ziurtagiria.

través del centro Zubiarte.

Certificado de haber superado el nivel A1 en las pruebas específicas de euskera de las convocatorias de ingreso y provisión posteriores al 30 de noviembre de 2017.

Otros títulos o certificados de nivel A1 que el Gobierno de Navarra pueda expedir o a los que pueda reconocer su validez.

Certificado de 1.^{er} curso expedido por cualquier Escuela Oficial de Idiomas (con fecha igual o anterior a 2008).

Certificado de Nivel Básico 1 expedido por cualquier Escuela Oficial de Idiomas (con fecha igual o posterior a 2009).

-Nivel A2:

Certificado de haber superado el examen del nivel A2 de los cursos organizados por el Gobierno de Navarra, bien a través de Euskarabidea, bien a través del centro Zubiarte.

Certificado de haber superado el nivel A2 en las pruebas específicas de euskera de las convocatorias de ingreso y provisión posteriores al 30 de noviembre de 2017.

Otros certificados de nivel A2 que el Gobierno de Navarra pueda expedir o a los que pueda reconocer su validez.

Certificado de 2.^o curso expedido por cualquier Escuela Oficial de Idiomas (con fecha igual o anterior a 2008).

Certificado de Nivel Básico 2 expedido por cualquier Escuela Oficial de Idiomas (con fecha igual o posterior a 2009).

-Nivel B1:

Certificado de haber superado el examen del nivel B1 de los cursos organizados por el Gobierno de Navarra, bien a través de Euskarabidea, bien a través del centro Zubiarte.

Certificado de haber superado el nivel B1 en las pruebas específicas de euskera de las convocatorias de ingreso y provisión posteriores al 30 de noviembre de 2017.

Nafarroako Gobernuak eman ditzakeen edo baliozkotzat jo ditzakeen B1 mailako beste ziurtagiri batzuk.

Oinarrizko zikloaren ziurtagiria, edozein hizkuntza eskola ofizialek luzatua (2008koa edo lehenagokoa).

Tarteko mailako ziurtagiria, edozein hizkuntza eskola ofizialek luzatua (2009koa edo geroagokoa).

Eusko Jaurlaritzak emandako balio ofizialaren arabera B1 mailaren baliokide diren ziurtagiriak.

-B2 maila:

Nafarroako Gobernuak Euskarabidean edo Zubiarte euskaltegian antolatutako ikastaroetan, B2 mailaren azterketa gainditu izanaren ziurtagiria.

2017ko azaroaren 30aren ondoko deialdi batean, izan sartzeko deialdia edo lanpostua lehiaketa bidez betetzekoa, berariazko probak egin eta B2 maila gainditu izanaren ziurtagiria.

Nafarroako Gobernuak eman ditzakeen edo baliozkotzat jo ditzakeen B2 mailako beste ziurtagiri batzuk.

4. maila gainditu izanaren ziurtagiria, edozein hizkuntza eskola ofizialek luzatua (2008koa edo lehenagokoa).

Maila aurreratuko ziurtagiria, edozein hizkuntza eskola ofizialek luzatua (2009koa edo geroagokoa).

Eusko Jaurlaritzak emandako balio ofizialaren arabera B2 mailaren baliokide diren ziurtagiriak.

-C1 maila:

Nafarroako Gobernuak Euskarabidean antolatutako ikastaroetan, C1 mailaren azterketa gainditu izanaren ziurtagiria.

2017ko azaroaren 30aren ondoko deialdi batean, izan sartzeko deialdia edo lanpostua lehiaketa bidez betetzekoa, berariazko probak egin eta C1 maila gainditu izanaren ziurtagiria.

Otros certificados de nivel B1 que el Gobierno de Navarra pueda expedir o a los que pueda reconocer su validez.

Certificado de Ciclo Elemental expedido por cualquier Escuela Oficial de Idiomas (con fecha igual o anterior a 2008).

Certificado de Nivel Intermedio expedido por cualquier Escuela Oficial de Idiomas (con fecha igual o posterior a 2009).

Certificados que tengan reconocida su validez oficial equivalente al nivel B1 por el Gobierno Vasco.

-Nivel B2:

Certificado de haber superado el examen del nivel B2 de los cursos organizados por el Gobierno de Navarra, bien a través de Euskarabidea, bien a través del centro Zubiarte.

Certificado de haber superado el nivel B2 en las pruebas específicas de euskera de las convocatorias de ingreso y provisión posteriores al 30 de noviembre de 2017.

Otros certificados de nivel B2 que el Gobierno de Navarra pueda expedir o a los que pueda reconocer su validez.

Certificado de 4.º curso expedido por cualquier Escuela Oficial de Idiomas (con fecha igual o anterior a 2008).

Certificado de Nivel Avanzado expedido por cualquier Escuela Oficial de Idiomas (con fecha igual o posterior a 2009).

Certificados que tengan reconocida su validez oficial equivalente al nivel B2 por el Gobierno Vasco.

-Nivel C1:

Certificado de haber superado el examen del nivel C1 de los cursos organizados por el Gobierno de Navarra a través de Euskarabidea.

Certificado de haber superado el nivel C1 en las pruebas específicas de euskera de las convocatorias de ingreso y provisión posteriores al 30 de noviembre de 2017.

Nafarroako Gobernuak eman ditzakeen edo baliozkotzat jo ditzakeen C1 mailako beste ziurtagiri batzuk.

Otros certificados de nivel C1 que el Gobierno de Navarra pueda expedir o a los que pueda reconocer su validez.

Goi mailako zikloaren ziurtagiria, edozein hizkuntza eskola ofizialek luzatua (2008koa edo lehenagokoa).

Certificado de Ciclo Superior expedido por cualquier Escuela Oficial de Idiomas (con fecha igual o anterior a 2008).

C1 mailako ziurtagiria, edozein hizkuntza eskola ofizialek luzatua (2009koa edo geroagokoa).

Certificado de nivel C1 expedido por cualquier Escuela Oficial de Idiomas (con fecha igual o posterior a 2009).

Euskararen Gaitasun Agiria (EGA), Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak luzatua eta Eusko Jurlaritzak luzatua.

Certificado de Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) del Departamento de Educación del Gobierno de Navarra y del Gobierno Vasco.

Euskaltzaindiaren D ziurtagiria.

Certificado D de Euskaltzaindia.

Eusko Jurlaritzak emandako balio ofizialaren arabera C1 mailaren baliokide diren ziurtagiriak.

Certificados que tengan reconocida su validez oficial equivalente al nivel C1 por el Gobierno Vasco.

-C2 maila:

-Nivel C2:

Nafarroako Gobernuak eman ditzakeen edo baliozkotzat jo ditzakeen C2 mailako beste ziurtagiri batzuk.

Otros certificados de nivel C2 que el Gobierno de Navarra pueda expedir o a los que pueda reconocer su validez.

Eusko Jurlaritzak emandako balio ofizialaren arabera C2 mailaren baliokide diren ziurtagiriak.

Certificados que tengan reconocida su validez oficial equivalente al nivel C2 por el Gobierno Vasco.

**II. ERANSKINA / ANEXO II. UNIBERTSITATEKO TITULAZIOEKIN LOTUTAKO
SALBUESPENAK / EXENCIONES RELACIONADAS CON LAS TITULACIONES
UNIVERSITARIAS**

Euskaraz egindako ikasketak / Estudios en euskera	Baldintza gehigarria / Requisito adicional	Euskarako hizkuntza prestakuntzaren berariazko kredituak / Créditos específicos de formación lingüística en euskera	Egiatzatu behar izatetik salbuetsitako jakite-maila / Exención de acreditación de los niveles equivalentes a
48 ECTS	Euskaraz egindako gradu-amaierako lana edo master ofizialaren amaierako lana / Trabajo fin de grado o trabajo fin de máster oficial en euskera	12 ECTS	C1
84 ECTS		12 ECTS	C1
114 ECTS		6 ECTS	C1
144 ECTS			C1

1. oharra: eskatzen diren ECTS kredituak graduko titulazio bakar batetik eskuratzen ahal dira, edo graduko titulazio bakar batekoak eta master ofizialeko titulazio bakar batekoak batuta.

Nota 1: los créditos ECTS requeridos podrán obtenerse de una única titulación de grado o de la suma de los créditos correspondientes a una única titulación de grado y a una única titulación de máster oficial.

2. oharra: graduaren amaierako lana edo masterraren amaierako lana euskaraz egitea baldintza gehigarria ez denean, lan horren kredituek balio bikoitza izanen dute lehen zutabeko ECTS kredituen batuketa egiten denean.

Nota 2: en los casos en los que la realización en euskera del trabajo fin de grado o del trabajo fin de máster no sea requisito adicional, los créditos correspondientes al mismo tendrán un valor doble a la hora de su cómputo para el logro del total de los créditos ECTS de la primera columna.

III. ERANSKINA / ANEXO III. UNIBERTSITATEKO TITULAZIOEKIN LOTUTAKO SALBUESPENAK / EXENCIONES RELACIONADAS CON LAS TITULACIONES UNIVERSITARIAS

Euskaraz egindako ikasketak / Estudios en euskera	Baldintza gehigarria / Requisito adicional	Euskarako hizkuntza prestakuntzaren berariazko kredituak / Créditos específicos de formación lingüística en euskera	Egiaztatu behar izatetik salbuetsitako jakite-maila / Exención de acreditación de los niveles equivalentes a
52 kreditu / crédito	Euskaraz egindako gradu-amaierako lana edo master ofizialaren amaierako lana / Proyecto fin de carrera o trabajo fin de master oficial en euskera	12 ECTS	C1
84 kreditu / crédito		12 ECTS	C1
114 kreditu / crédito		6 ECTS	C1
144 kreditu / crédito			C1

1. oharra: eskatzen diren kredituak enborreko irakasgaietatik, nahitaezko irakasgaietatik eta aukerako irakasgaietatik eskuratzen ahal dira, eta ez aukera libreko kredituetatik.

Nota 1: los créditos requeridos podrán obtenerse de las asignaturas troncales, obligatorias y optativas, sin que puedan contabilizarse los créditos de libre elección.

2. oharra: eskatzen diren kredituak 3.2 artikuluko titulazioetako bakar batetik eskuratzen ahal dira, edo horiek gehi master ofizialeko titulazio bakar batekoak.

Nota 2: los créditos requeridos podrán obtenerse de una única titulación de las recogidas en el artículo 3.2 o de la suma de estos y los correspondientes a una única titulación de máster oficial.

3. oharra: karreraren amaierako proiektua edo master ofizialaren amaierako lana euskaraz egitea baldintza gehigarria ez denean, lan horren kredituek balio bikoitza izanen dute lehen zutabeko kredituen batuketa egiten denean.

Nota 3: en los casos en los que la realización en euskera del proyecto fin de carrera o del trabajo fin de máster oficial no sea requisito adicional, los créditos correspondientes al mismo tendrán un valor doble a la hora de su cómputo para el logro del total de los créditos de la primera columna.